



Ikasketa Plana

1041/2017 Errege Dekretuak, abenduaren 22koak, Egiaztapenaren ondoreetarako oinarritzko mailaren gutxieneko eskakizunak finkatzen eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen araubide bereziko hizkuntza ikasketen B1 tartekoa, B2 tartekoa, C1 aurreratua eta C2 aurreratua mailen oinarritzko curriculuma eta zenbait ikasketa planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak ezartzen ditu.

80/2019 Dekretuak, maiatzaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezartzen ditu, irakaskuntza horietako oinarritzko A1 mailaren, oinarritzko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.

Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren mailak, Oinarritzko A1etik Aurreratua C1era artekoak, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan (HEEM) ezarritako mailen arabera ematen dira eta sei ikasturtetan antolatzen dira:

- Oinarritzko maila, bi ikasturte:
 - A1, ez dauka ziurtagiri ofizialik eta
 - A2, ziurtagiri ofiziala dauka
- Tarteko maila B1, ikasturte bat. Ziurtagiria dauka.
- Tarteko maila B2, bi ikasturte:
 - B2.1, ez dauka ziurtagiri ofizialik eta
 - B2.2, ziurtagiri ofiziala dauka
- Maila Aurreratua C1, ikasturte bat. Ziurtagiria dauka.

Ikasketa motak

- **Ofiziala:** semipresentziala eta aurrez aurrekoa, ikaslea klaseetara joaten da eta ikasturteka azterketak egin ditzake dagozkion deialdietan.

- **Librea:** ikaslea ez da klaseetara joaten eta maila ezberdinetako ziurtapen frogetara soilik aurkezten da. Ez dago deialdi mugarik.

Ezin daiteke hizkuntza baterako aldi berean matrikula ofiziala eta librea izan, ikasturte batean.

Ziurtagiriak

Maila edo ziklo bakoitzaren bukaeran ezarritako frogak gainditzeak dagokion ziurtagiri akademikoa ematen du:

- **A2 Oinarritzko Mailako Ziurtagiria**
- **B1 Tarteko Mailako Ziurtagiria**
- **B2 Tarteko Mailako Ziurtagiria**
- **C1 Maila Aurreratuko Ziurtagiria**
- **C2 Maila Aurreratuko Ziurtagiria**

Ziurtagiri horiek ofizialak dira bai Autonomia Erkidegoan bai Estatu osoan.



967/1988 Errege Dekretuak, irailaren 2koak, arautzen dituen ikasgaiak	944/2003 Errege Dekretuak, uztailaren 18koak, arautzen dituen ikasgaiak	46/2009 Dekretuak, otsailaren 24koak, arautzen dituen ikasgaiak	Indarrean dagoen Errege Dekretuak arautzen dituen ikasgaiak (1041/2017 ED, abenduaren 22koa)
Oinarrizko zikloaren 1. kurtsoa	Oinarrizko Mailaren 1. kurtsoa	Oinarrizko Maila (A2)	Oinarrizko Maila
Oinarrizko zikloaren 2. kurtsoa	Oinarrizko Mailaren 2. kurtsoa		
–	Oinarrizko Mailaren ziurtagiria	Oinarrizko Mailaren ziurtagiria	A2 Oinarrizko Mailaren ziurtagiria
Oinarrizko zikloaren 3. kurtsoa	–	Tarteko Maila (B1)	B1 Tarteko Maila
Oinarrizko zikloaren Ziurtagiria	–	Tarteko Mailaren Ziurtagiria	B1 Tarteko Mailaren Ziurtagiria
Goi Mailaren 1. kurtsoa	–	Maila Aurreratua (B2)	B2 Tarteko Maila
Goi Mailaren 2. kurtsoa			
Gaitasun Ziurtagiria	–	Maila Aurreratuaren Ziurtagiria	B2 Tarteko Mailaren Ziurtagiria
–	–	C1 Maila	C1 Maila Aurreratua
–	–	C1 Mailaren Ziurtagiria	C1 Maila Aurreratuaren Ziurtagiria
–	–	C2 Maila	C2 Maila Aurreratua
–	–	C2 Mailaren Ziurtagiria	C2 Maila Aurreratuaren Ziurtagiria

*Hizkuntza guztietarako, Euskara izan ezik

Euskararen kasuan (64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa eta 48/2009 Dekretua, otsailaren 24koa):

5. maila edo Goi zikloa	Gaitasun maila	C1 Maila aurreratua
Gaitasun mailaren ziurtagiria	C1 gaitasun mailaren ziurtagiria	C1 Maila aurreratuaren ziurtagiria